



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-01-12

BILERA ZENBAKIA:26

ORDUA ETA LEKUA: 19:00etan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: 7 parte hartzaile | 6 emakumezko eta 1 gizonezkoa.

Gonbidatua: Tomas Plazaola (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila)

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

TTIPI-TTAPA

Itsasondoko Jubilatu Elkarteko kideen prozesua zein izan den azaldu dio lan taldeak Tomas Plazaolari. Jubilatu Elkarteko kideak, Udaleko lan taldea eta Osasun zentroko profesionalak lagun 2015eko maiatzetik aurrera asteartero biltzen dira ibilaldia egiteko. Egitasmo honen barruan, hitzaldiren bat ere antolatu da beraiek eskatuta eta udalak laguntza eskeini du Ordizian eta Legorretan ibilaldiarekin batera pintxo bat jateko, kamisetak eskeini zaizkie eta diru laguntza lortu berri du. Diru laguntza honekin 2016an soinketa irakasle bat kontratatu da ttipi-ttapa egitasmoaren barruan ariketa batzuk bideratzeko. Hala ere, lan taldea konziente da herritar batzuek ez dela iritsi eta hainbat adineko etxean daudela ia atera gabe, ibilaldirik egin gabe eta sozializatu gabe. Bestetik Jubilatu Elkarteko kideek azaroan udaleko ordezkariekin izan zuten bileran, egitasmoak beste zerbait behar zuela osatzeko adierazi zuten.

Herriko azalpenaren ondoren, Tomas Plazaolak beste herri batzuetako egitasmoen inguruko informazioa eskeini du (Tolosa, Ordizia, Beasain...). Osasun Siletik lortu nahi dena, adinekoak edo/eta ezinduak etxetik atera eta bizitza osasuntsua lortzeko aktibo izatea da, medikalizazioa ahal den neurrian ekidin eta sozializazioa bultzatu. Guzti hau ahal den modu autonomoenean lortzea eta instituzioen laguntza eta presentzia ohitura hauek barneratzean desagertzea litzateke azken helburua. Garrantzitsuena Jubilatu Elkarteko kideen eta ttipi ttapan parte hartzen duten herritarren eskaera zein den entzun eta hortik abiatzea dela azpimarratu du: *eurek izan behar dute motorra*. Beste herri batzuetan etxetik ateratzen ez diren adineko edo ezinduak programan txertatzeko, bolondresak dira gakoa. Itsasondoko ttipi ttapa osatzeko kontutan izan beharrekoak :

- Osasun siletik tailerrak eskaintzen dituzte, erorketen aurrean zer egin eta



ortopedia materialaren inguruan. Interesa balego, berarekin harremanetan jarri gaitezke.

- Beste herrietako esperientziak elkartrukatu eta ttipi ttapan parte hartzen dutenek zer nahi duten jakitean, esperientzia hauetaz baliatu.
- Materiala eskuratzeko laguntza (paperezko soportekak, propaganda, bideoak...)

Lan taldean erabaki da lehenengo etxean bakarrik dauden adinekoen argazkia izan beharko genukeela, zenbat pertsonengana iritsi nahi eta ezin den jakiteko. Bestetik ttipi ttapan parte hartzen duten kideekin bildu beharko ginatkeela beraien asmo eta nahiak jaso eta horren arabera erantzun bat emateko.

2016 AURREKONTUA

2016 urterako Ongizate arloan dagoen aurrekontuaren errebasoa egin da. Gizarte Larrialdi Laguntzek betetzen ez duten egoerarako 3000 euro, Familia eskuhartzerako 2000 euro, Berdintasunaren bidean lan egiteko 1000 euro eta denboraren bankuan 2000 euro.

| ETXEKO- LANAK | NOIZKO? | ZEINEK? |
|--|----------------|------------------|
| Ttipi ttapa ekimena nola indartu proposamenak | Otsaila | Erkuden eta Jabi |
| Dokumental ziklorako data eta pelikulak aukeratu | Otsaila | Leire eta Marijo |
| Bakarrik bizi diren adinekoen egoera (1fasea) | Martxoa | Itsaso |
| Denboraren bankua (diagnostikoa) | Martxoa | Haizea, Maider |
| Iraileko jaietarako bokata jana antolatu | Uztaila | Lan taldea |
| Aurrekontuekin hasi | Iraila | Lan taldea |
| 2017ko aurrekontuak itxi | Urria | Lan taldea |

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Otsailaren 9 an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Ttipi ttapa ekimena nola indartu proposamenak.
- Dokumental ziklorako data eta pelikulak aukeratu.
- Urteko plangintza osatu.
- Martxoak 8: proposamenak jaso eta lanak banatu.